



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## ERAKUNDE ADIERAZPENA

Gernikan, 2017eko martiaren 22an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko gizartearen ezagugarriak tolerantzia, inklusioa eta errespetua dirala eretxita, honakoak adierazo gura ditugu:

**Arbuiatu egiten dogu “Hazte Oir”, alkartearen kanpaina transfoboa**, hainbeste hauts harrotu dauena. Arbuiatu egiten dogu, ez dauelako zuzentasunez errespetaten pertsona transexualak. Arbuiatu egiten dogu, baztertu egiten deuelako eta, beraz, kalte egiten deusalako ume transexualen ondo izate eta babes emozionalari. Kanpaina horretan bultzatu gura diran mezuak eraso egiten deutse gizarte erabat demokratikoaren euskarri izan behar daben printzipio eta balioei, egin-eginean, pertsonenganako tolerantziari, aukera-askatasunari eta genero-aniztasunari.

Arbuiatu egiten dogu kanpaina hori, aurka egiten deusalako bai Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Arreta eta Babesari buruzko 32005 Legean ezarritakoari, bai transexualak genero-identidadeagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legean ezarritakoari. Horrek guztiorrek geroaz gure kaleetan halango mezurik ez onartzera.

Horrexegaitik da beharrezkoa zenbait erakundek egiten diharduen diagnosi juridikoa. Gure kaleetan ez ditugu nahi bazterkeria bultzatu eta genero aniztasuna eta pertsona transexualen eskubideak errespetaten ez dituen mezuak; gure kaleetan ez dogu nahi transexualtasuna patologizatu egiten dauen mezurik. Halanda ze, exijitu egiten dogu kanpaina hori kentzea eta gure erakundeek autobus hori gure herrietan zehar ibiltzeari buruzko arbuioa adierazotea.

Azkenik, Bizkaiko Batzar Nagusiok konpromisoa agertu gura dogu transfobiaren aurkako burrukan lanean jarraitzeko. Kanpinak kanpaina, eutsi egin behar deusagu legeak, arreta-protokoloak, hezikidetz... indartzeari eta hobetzeari, berraro be halako kanpaina baztertzailerik gertatu ez daiten eta pertsona guztiak eskubide guztien jabe izan daitezcan.

Gure ezetza transfobiari! Hazte Oír-en mezuak eta autobusak ez dira ondo etorriak gure herri eta urietara. Pertsona guztien askatasuna, duintasuna eta erabagiteko eskubidea dira gure bilgunea.